

2015;eko apirilak 24, ostirala
Kaixo zuei,
Atzo jaitsi ginen mitarretik eta lehen bai lehen gertatutakoaren berri ematera gatoz.

Kontua joan den hilabetean hasi zen Zigor anaia eta koinata bisitara etorri zitzaidanean. Hitz egiten geundela, Zigorrek eskuko atzeko partea gorritua neukala eta ekzema bat zela pentsatu zuen. Nik ezetz, jartzen diguten tanpoi baten tinta dela. Pentsatu gabe, atzamarrekin, garbitzeko moduan igurtzi zidan eskua. Nahiz eta berehala erretiratu nuen eskua, gero jakin genuenez, tintarekin zikindu zen. Bisitatik ateratzean, antza denez eurak ere makinatik pasatzen dute eskua eta hor hasi zen kontua. Berari ez zioten ia ezer esan, seguruenik halako egoerak nahiko arruntak izango direlako. Niri, fouilla itxaroten nengoen bitartean deitu ninduten eta zigilua berriz berifikatu.

Beranduago goiz berdinean, dispatchingera (edo hortik nonbait) eraman ninduten hatz markak hartu eta txartel berria egiteko (neukana apurtuta zegoen).

Protestatu nuen, noski, batipat Zigor eta Karineri potroak ez ukitzea eskatuz, baina intzidente zozoa zelakoan hor gelditu zen kontua. Hiru edo lau egun beranduago, pisuko txefak deitu ninduen berriz ere kontu horrekin txostena egin behar zuelako. Agobiatuta, baina gauza lasaitasunez esplikatuta nion. Berehala ulertu zuen eta afera bertan jarraipenik gabe geldituko zela eman zidan aditzera.

Aste bete edo bi beranduago, beste bisita batean, Ana etorri eta konturatu zen fitxen artean Zigorrena errotulagailu gorri ikusgarri batekin zegoela markatua. Istorioa ezagutzen zuenez, galdetu zuen ea zerbait gertatzen zen Zigorrekin baina ez zioten erantzunik eman. Apur bat moskeatu zen. Hurrengo asteetan, telefonoz ere deitu izan dute segurtatzeko ez zela arazorik egongo eta ezetz, ez zegoela ezer esan zieten.

Gure aldetik, gertatutakoarekin espetxeak Zigor "markatu" zuela pentsatu genuen, bisitetara datorrenean "adi" egoteko...

Joan den ostiralean, Zigor etorri zen eta ez zioten sartzen utzi. Ni ere parluarretara jaitsi nintzen eta fantômek ematen dituztenean esan zidaten Zigor eta biok debekua genuela. Arduraduna eskatu nuen eta Soucraye etorri zen, baita beranduago Poinçon, gure batimenduko lieutenanta.

Horien esanetan, beraiek ez zuten zerikusirik debekuekin -sei hilabeterako-, prokuradoreak ezarria zuelako.

Nik noski, arazoa ez zela bakarrik beraiek tintaren kontuarekin bultzatutako prozedura (baina baita ere), baina egun horretan zehazki, ez ni ez Zigor ez abisatu izana anaia bertara etorri eta bisita debekatu arte. Soucrayek ezetz, beraiek ez zigutela zertan ezer esan behar eta hor esan zidan berak bazekiela Zigor ere dena ondo zegoela jakiteko deitzen egon zela, baina "niri deitu behar zenidaten eta niri galdetu!" bota zuen.

Bai kontu batekin (zigiluarenarekin) zein eguneko kontuarekin -ez abisatu izana- oso oso fede txarrez ari zirela ikaragarri nabarmena zen. Gainera oso urduri zeuden denak, batipat Soucraye eta Poinçon. Esan beharra dago pisuko buruarekin bere bulegoan hitz

egiten nengoen eta esan zidanean afera garrantzi gabekoa eta armairura joango zela, Poinçon ere bulegoan bertan zegoela beste mahai batean eserita, beraz guztia entzun zuen.

Oso lasai eta modu onean hitz egin nien, ezta ahotsa altxatu ere egin gabe, baina aditzera eman nien ezin nuela onartu horrelako eraso zuzena eta beraiek aurretik jakina, gure bizkarretik gainera, gure senideen aurka eta protesta moduan, neure kabuz eta borondatez mitarrera igoko nintzela.

Ez zitzaien batere gustatu erabakia, batipat Poinçonerik, oso oso urduri zegoen.

Eskuburdirak jartzeko eskuak bizkarrean eta bueltatzea eskatu zidaten eta lasai, horrela joan ginen Poinçon eta beste surveillant gradé bat gure batimenduko mitarretara. Bidean, ez ninduten ezta besotik heldu ere, oso lasai joan ginen, esan bezala, Poinçon izan ezik, puzka eta ostikada kolpeka eta mekaquendioska ibili zelako bide osoan. Harrigarria.

Mitarrera ailegatzean, bertan pasilloan zuzendaria Boëls eta beste lieutenanta zegoen, txikitxo, ile zepiloa duena eta batzuetan bibote-perilla, Detembel deitzen da. Horiekin hiruzpalau surveillant. Ezer esan gabe miaketa gelara sartu nintzen. Hiru txakur zeuden hor: himno espainola ziztukatzen digun memoa, surveillant arrunt bat eta "buru" lana egin zuena, beltz burusoil ikaragarri indartsua, nahiko heldua eta bi marra horizontalekin gradatua. Besteak kanpoan gelditu ziren; ateko leihatilatxotik ikusten nituen.

"espainola" batipat ikaragarri urduri zegoen eta beltzaren lehen hitzetatik ohizko tonu mehatxagarria baino fuerteago hitz egin zidan. Dagoeneko tientoan nengoen, horrenbesteko "errezepzioa" ere kezkarria egin zitzaidan.

Miaketa ia txitik esan gabe egin nuen. Hankak zabaltzeko unean, espainolak ez zekien non sartu joan etorrietan urduritasun nabarmenarekin... eta piztuta neukan argi gorria dardarka jarri zitzaidan... beraz, esan bezala (berak espainolak erakutsi zidan nola egin eskuak paretan jarri eta hankak altxatuz). Esan bezala egin nuen. Ikustekoa zen, gero, espainolaren aurpegia eta miaketa zeraman beltzari botatzen zizkion begiradak. Orain, seguru nago nik hankak altxatzea errefusatzean (normalean egiten dugun moduan) gainera saltatzeko prest zeudela. Kontua da miaketa bukatuta, janzten hasi nintzela eta galtzontzilo, galtzetin eta prakak jarri bitartean erreglamentuan jartzen duen moduan telefono deia egin nahi nuela esan nion jefeari. Beltzak ez zidan erantzun. Kamiseta burutik sartu nuen eta burua ateratzean, beltzak pausu bat aurrera egin zuela ohartu nintzen eta esku itxia paparrean jarri zidan esanez "nik esaten dizut gaur ez duzula telefono deirik egingo" eta hor, kieto gelditu zen eskuarekin bultzaka.

Nire aldetik ez nuen ezta kamiseta erabat janzten bukatu. Besoak alboetan jarri eta pausu bat atzera egin nuen paretaren kontra jarri arte. Eskuak ere, paretaren kontra jarri nituen, mugitu gabe, ulertu nuen nire edozein mugimenduren zain zegoela erasorako. "Agindu guztiak berak esan bezala bete nituela", "prest nengoela nire kabuz eta besterik gabe berak esango zidanean ziegara sartzeko eta mesedez, eskua kentzeko, ez bai zegoela

mehatxu fisikoren beharrik" esan nion tono lasaian. Ez zidan kasurik egin, noski eta isilik, geldi eta niri begira gelditu zen mugimendurik egin gabe. Ni berdin, ezta belarri punta ere mugitu gabe, eskuekin ere kontuz, bizkarra eta eskuak paretari pega-pega eginda. Hiru lau aldiz eskatu nion, mesedez, eskua kentzeko baina bera kieto eta isilik. Kanpoan ikusten nituen buruak "alertatzeko", ahotsa altxatu nuen eskua kentzeko eskatuz eta ez probokatzeko. Berehala sartu ziren, Detembel lieutenanta aurretik. Ondo-ondoan jarri zen, matoiaren aldamenean eta tono lasaiagoan esan nion "aginduak gradéak esan bezala bete nituela, miaketa bukatuta zegoela eta ez zegoela mehatxu fisikoren beharrik eta mesedez, bere gizonari eskatzeko eskua kentzea". Hori esandakoan, apenas esaldia bukatuta, beltzak "ça suffit" eta "à terre" oihukatu zuen ezkerreko besotik helduz lurrera bota ninduten oso bortizki. Bizkar gainean jarri zitzaidan zezena (beltzak fisiko ikaragarria dauka) eta espainolak ere belauna lepo atzean jarrita aurpegia lurrean plakatu zidan. Eskumutur eta besoak bihurritu, ostikadak belaun hanketan eta "hau lan ederra egiten duzuen torturazailarena" esan nienean (min garrasien arten) esku kolpe ederrak eman zizkidaten premioz buruaren atzealdean ere. Eskuburdinak jarri zizkidaten, behar bezala estutuak, odola ez pasatzeko, noski.

Oraindik oinutsik (galtzetinetan) eta bolandaka, beso eskumuturrak bortizki bihurrituz eraman ninduten pasillotik. Burua hankartera bultzatu eta eskumuturrak goraka tiratzen zuten, atzeraka begira nindoan nahitaez, eta hor, gelako ate zabal zabalduaren atzean eta pasilloko paretaren kontra, zuzendaria ikusi nuen ezkutatuta (benetan erridikulua zela kuadroa!) leihatila karratutik begira. Hor ere, "ez izkutatu Boël jauna, zu zara hemen gertatzen denaren arduraduna" esan nion eta ostarabe, premio moduan kolpe andana irabazi nuen buru eta batipat zangoetan eta zezenak "hemen ni bakarrik nago ez dago beste inor, nik agintzen dut" edo antzerako zerbait bota zidan.

Ziegara helduta, belauniko jartzeko agindu bai, baina kolpeka jarri ninduten eta jarraian lurreratzeke ere baina bortizki bota ninduten. Erorian banketa kolpatzetik oso gertu egon nintzen, baina zezenak, eskumuturretatik helduta mugitu eta sorbaldarekin kriston kolpea hartu nuen lurraren kontra. Zezenak belauna jarri zidan giltzurrun inguru gainean eta beste batek, belauna bizkar-lepoan burua lurrean plakatzeko. Beso bihurriketa batzuk, eta zezenak "laisse moi faire" edo antzerako zerbait esan zuen. Belauna kendu zidaten lepo aldetik. Zezenak kriston saltoa eman zuen belaunarekin bizkarrean eta alde batetik bestera (nire ezkerreko giltzurrunetik eskuinera) pasatu zen. Hortik aurrera oso azkar joan zen guztia eta zezenak izugarritzko perizia eta esperientzia zeukala erakutsi zuen (biloak tente jartzekoa), masajista kiropraktiko baten moduan. Bere besoa nire ezker besoaren inguruan jarri, eskua sorbalda-atze aldean apoiatuz, eta eskumuturretik beste eskuarekin tiratuz. Hiruzpalau kolpe-tiroi eman zizkidan sorbalda lekutik desenkatatuz (baina barruan utzita). Jarraian, praketak gerritik, atzealdetik heldu eta berriz tipoarendar kolosalarekin ero baten moduan tiratu zidan bizpahiru aldiz, prakak apurtu nahian edo? Lortu ez zuenez, gerrikoa eusteko tiratxo batetik tiratu eta

apurtu zuen, ondoren egindako zulotik atzamarra sartzen saiatu zelarik. Ez zuen lortu eta une horietan berriz ere eskuburdinak kentzeko agindu zuen norbaitek eta besoa ondo bihurritu eta bizkarra ere saltoz belaunarekin gustora zanpatu ondoren, eskuak askatu zizkidan.

Kostata altxatu nintzen. Ordurako guztiak zeuden kanpoan. Zuzendariak kanpoko ate ataritik zerbait esan zidan baina ez nion ulertu eta bizkarra eman nion.

Behin atea itxita, taburetean jarri nintzen arnas-lasaitzeko. Ezkerreko besoa apenas mugi nezakeen eta gorako okak nituen. Botaka egitekotan egon nintzen eta haizea hartzeko ohe ertzean eta leihoko haizetxoan jartzeko altxatu nintzen. Berehala blankazoa eman zidan, burua kristalaren kontra apoiatzen saiatu nintzen mareoari eusteko, baina ezin, belaunek laga eta leihoko burdin mekanismo eta paretaren ertzarekin eman nuen burukada bekokiarekin. Lurrera erorita ez dakit zenbat denbora egon nintzen hor; gutxi uste dut. Gorakoarekin, konketara ailegatu nintzen.

Hortik minutu batzuetara (?) Detembel lieutenanta etorri zen kuadernotxo batekin nire esanak hartzeko. Ez neukala ezer esateko esan nion, berak ondo zekiela nola gertatu zen eraso eta bera, beste lieutenanta eta zuzendaria hor egonda beraiek zirela bortxaketaren arduradun nagusiak esan nion. Hor, bekokira begira zegoela konturatu nintzen, urduritasun begiekin eta odoletan nengoela esan zidan. Ni ez nintzen ezertaz konturatu, sorbalda mina nuelako guztien gainetik. Medikua ikusi nahi nuela esan nion, besterik ez. Hortik gutxira medikuarenera eraman ninduten. Bizkar eta sorbaldako kolpe markak anotatu zituen, baita bekokiko kolpea eta moztuak. Aspirinak eta pomada bat eman zidan sorbaldan jartzeko. Agiria eman zidan eta ziegara itzuli nintzen.

Biharamunean komisio ostia astelehenean izango zela esan zidaten. Baita ere, larunbat arratsaldean, Josebarekin hitz egiteko aukera izan nuen (leihotik, gutxi gora behera) eta gertatua laburki azaldu nionean arratsaldeko patioarekin mitarrera igoko zela esan zidan. Aurretik kanpora abisatuko zuela gelditu ginen. Baita ere, kontu handiz ibiltzeko aholkatu nion, probokazioetan ari zirela eta ez horretan erortzeko. Arratsaldean patioa bukatzean mitarrera igo zen, puteo askorik gabe (zapatilak kendu zizkieten, sudadera...).

Astelehenean zuzendaria etorri zen emakume batekin esateko komisio disziplinarioa izango zela. Joateari uko egin nion. Ondoren, berriz zuzendaria etorri zitzaidan esateko hamalau egun sartu zizkidatela, zazpi "sursis" delakoarekin. Ostegunean aterako nintzela beraz.

Asteartean Miren abokatua etorri zen eta Joseba eta biak elkarrekin joan ginen furgonetan parluar berezietara. Joseba ondo zegoen eta ostegunean jaitsi behar zela esan zidan ere. Besterik gabe ziegetara jaitsi eta beste erantzun mota batera pasatzea erabaki genuen.

Nire aldetik ere instantzia guztietara idatzi dut dagoeneko eraso salatzen.

Hau da dagoen guztia momentuz.

Honen kopia bidali dut D1, D3 eta M.A.F. Batimenduetara.